

DONOSTIA SUSTAPENA

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA

VII. Plangintzaldia (2023-2027)

AURKIBIDEA

1 Sarrera

2. Aurrelanak

2.1. KEMEN metodologia

2.2. Lan prozesuaren helburua

2.3 Lan prozesuaren nondik norakoak

2.3.1. Egiturak

2.3.2. Lan-prozedura

3. Euskararen Plan estrategikoa 2023 - 2027

3.1. Autoebaluazioaren ondorio nagusiak

3.2. Erronka eta helburu estrategikoak

3.2.1. Kudeaketaren erronkak eta helburu estrategikoak

3.2.2. Erabileraren erronkak eta helburu estrategikoak

3.3. Plan estrategikoa

3.3.1 Adierazleen arabeko helburuak

3.3.2. Kudeaketa Plana

3.4. Hizkuntza irizpideak

3.5. Antolakuntza egitura eta funtzioak

3.6. Baliabideak

3.7. Planaren garapena eta jarraipena

1. SARRERA

Euskararen erabileraren normalizazioari lotuta indarrean dagoen araudiaren arabera, herri-administrazioei dagokie herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskararen erabilera normalizatzeko neurriak hartzea. Era berean, Hizkuntza Politika Sailburuordetzak Normalizazio Dekretu berria onartu du, hain zuzen ere, 19/2024 Dekretua, Euskal Sektore Publikoaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko prozesua arautu duena. **DONOSTIA SUSTAPENA** Euskal Sektore Publikoko entitatea den heinean, Dekretu horren eraginpean dago.

Euskarari dagokionez, Donostia Sustapena ez da hutsetik abiatzen: euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko azken plana Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2022ko irailaren 26an, hain zuzen ere 2023ko abenduaren 31n bukatu zena. Hala, azken urteotan urratsak egin dira entitatean, bai herritarrei zuzendutako zerbitzu eta jardueretan bai barne-komunikazioetan euskararen erabilera areagotzeko, baina erabilera ez da behar hainbatean hazi, eta jauzi hori egitea da aurrera begirako erronka nagusia.

Euskarari dagokionez, bada, Donostia Sustapenaren etorkizuneko egoera honela irudikatu dugu, honako galderari erantzunez:

Non egon nahi du Donostia Sustapena entitateak, euskarari dagokionez, etorkizunean?

Donostia Sustapenak euskaraz ere funtzionatuko duen entitatea izan nahiko luke; hau da, denekin eta testuinguru guztietan euskaraz lasai egin daitekeen eremu bat izatea, non hiritarrei une oro eta leku guztietan, euskara bermatuko litzaiekeen.

Bisio hori lortu ahal izateko, 2023-2027 epean eman beharreko pausoak definitu ditu plan estrategiko honetan Donostia Sustapena entitateak; bertan zehaztu dira, datozen bost urteotarako helburu estrategikoak eta horiek gauzatzeko egingo diren ekintzak, beraien arduradun eta epeekin.

2. AURRELANAK

2.1. KEMEN metodologia

Donostia Sustapenak, VII. Plangintzaldirako Plan Estrategikoa (2023-2027) osatu du, 2023ko azken hiruhilekoan egindako autoebaluazioa oinarri hartuta.

Horretarako, Hizkuntza Politika Sailak euskal sektore publikoko entitateek euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 19/2024 Dekretuak jasotzen duenaren arabera kudeatzeko eta jarraipena egiteko garatu duen marko eta tresna berria hartu dugu kontuan: **KEMEN, Kudeaketa eta Erabilera Marko Euskararen Normalizaziorako**.

KEMEN, Kudeaketa eta Erabilera Marko berriak edozein entitateetan euskararen kudeaketa, erabilera eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen ditu. **Marko berrian lehentasunezko tokia aitortzen zaio kudeaketari**; hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Baina kudeaketa ez da helburua, baliabidea baizik. Beraz, KEMENek kudeaketa eta jarraipenerako adierazleen sistema-eguneraketa ekarri du eta hurrengo hauek dira marko berriaren ezaugarri nagusiak:

- Edozein entitateetan, euskararen erabilera kudeatu eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen dituen markoa da.
- Kudeaketari lehentasuna eman zaio, eta euskararen erabilerari dagozkion adierazleetan eragin handia duten kudeaketa-adierazleak txertatu dira: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...
- Adierazleen formulazio positiboa egin da, normalizazio-prozesuaren norabidea markatzeko asmoa.
- Entitate bakoitzak markoa bere errealitate, ezaugarri eta beharretara egokitzeko aukera dauka.
- **Aginte-panela** osatu da. Aginte-panelak Euskal Sektore Publikoko entitateen jarraipenerako gutxieneko adierazleak biltzen ditu (14 adierazle). Hau da, 14 adierazle horiek ezinbestean landu beharko ditu entitate bakoitzak bere Plan Estrategikoan, eta 14 adierazle horiez gain, entitatearentzat estrategikoak diren gainerako adierazleak aukeratuko ditu.

Gauzak horrela, ondoko taulan jasotzen dira KEMEN markoak dituen 48 adierazleak. Urdinez markatu ditugu Eusko Jaurlaritzak ezinbestekotzat jo dituen aginte-paneletako adierazleak eta horiz Donostia Sustapenak aukeratutakoak:

ARLOA	ADIERAZLEA
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Entitateak erabilera-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du
	Erabilera-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.
LIDERGOA	Arduradunek (politiko eta teknikoek) parte hartzen dute erabilera-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.
	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera-planen finkatutako helburuak bete daitezten.
	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, erabilera-planean zehaztutako moduan.
LANGILEAK	Langileei ematen zaie informazioa entitateko erabilera-planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.
	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.
	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.
	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.
	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak entitatean duen bilakaeraz.
GAITASUNA	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.
	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.
	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	Entitateak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldeei.
	Entitateak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du.
HIZKUNTZA KLAUSULAK	Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.
	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.
	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari.
	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

ARLOA		ADIERAZLEA
ZERBITZU HIZKUNTZA	IRUDIA	Entitatearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude
		Entitatearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude
		Entitateak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan
		Entitateak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak
	HERRITARREKIKO HARREMANAK	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen
		Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz
		Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira
		Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak
		Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz
		Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio entitateari, ahoz
		Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio entitateari, idatziz
LAN HIZKUNTZA	BARNE-HARREMANAK	Lan-bilerak euskaraz egiten dira
		Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da
		Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da
		Entitate barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira
		Entitate barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian
		Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian
		Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago
	KANPO- HARREMANAK	Sektore publikoko entitateekin euskaraz egiten da ahozko harremana
		Sektore publikoko entitateekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak
		Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana
		Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak
	PRESTAKUNTZA	Entitateak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei
		Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra
		Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei
	BALIABIDE INFORMATIKOAK	Entitateak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak
		Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak
	SORTZE-HIZKUNTZA	Euskaraz sortzen dira dokumentuak

2.2. Lan-prozesuaren helburua

VI. Plangintzaldiari dagokion Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren autoebaluazioa egitea, eta VII. Plangintzaldiari dagokion planaren erronka eta helburu estrategiko nagusiak lantzea, Donostiako Udalaren ildo nagusiak kontuan izanda.

2.3. Lan-prozesuaren nondik norakoak

2.3.1 Egiturak

Autoebaluazioa egiteko eta VII. plangintzaldiko (2023-2027) Euskararen Plan Estrategikoaren oinarriak lantzeko honako lantalde teknikoa osatu dugu:

Partaideak
- Donostia Sustapenako teknikariak: Lore Iturri eta Alazne Arocena. - Elhuyar Aholkularitzako teknikariak: Helene Armentia eta Alba Fatuarte.
Funtzioak
- Prozesua antolatu eta koordinatu. - Autoebaluazioa egiteko datuak bildu eta informazioa jaso. - Diagnostikoa kontrastatu eta osatu. VII. plangintzaldiaren erronka eta lan-ildo estrategikoak hausnartu eta landu.

2.3.2 Lan-prozedura

Entitatearen diagnostikoaren kontrastea egiteko eta VII. Plangintzaldiaren Plan Estrategikoaren hezurdura diseinatzeko honako urratsak hauek eman ditugu:

1. Aurrelanak
- Entitateko teknikariei prozesuaren azalpena egin. - Aurrelanak antolatu - Proiektua garatzeko beharrezko informazioa trukatu.
2. Diagnostikoa
- Prozesua antolatu eta koordinatu. - Diagnostikoa kuantitatiboa osatzeko datuak bildu eta informazioa jaso. Langileen galdetegia: 46 langileei bidali zaie eta horietatik, 35ek erantzun dute. Entitatearen galdetegia. - Datuak ustiatu eta ponderazioaren arabera emaitzak atera. - Diagnostiko kualitatiboa entitateko teknikariek osatu.
3. Planaren Diseinua
VII. plangintzaldiaren oinarriak landu: erronkak eta helburuak. - Plan Estrategikoaren oinarriak zehaztu: - Adierazleei lotutako helburu estrategikoak landu. - Helburuak erdiesteko ekintzak, arduradunak eta epeak proposatu. - Kudeaketa-planaren proposamena egin.

3. PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2027

3.1. Autoebaluazioaren ondorio nagusiak

Jarraian jaso dugu Donostia Sustapena entitateko euskararen erabilera eta presentziaren egoeraren argazkia, KEMEN markoaren atal bakoitzean entitatea zein puntutan dagoen aztertuz.

KUDEAKETA

ARLOA	ONDORIOAK
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Ez dago erabilera-plana kudeatzeko sistema formal antolatuturik. ezta hizkuntza-irizpideen eta planaren jarraipena egiteko sistemarik ere.
LIDERGOA	Arduradun politiko eta teknikoen ez dute sistematikoki parte-hartzen erabilera-planaren diseinu, garapen eta jarraipenean.
LANGILEAK	Oro har, langileek iritzi positiboa dute Donostia Sustapenean euskararen erabilera sustatzeko egiten ari den lanaren inguruan, baina parte-hartzean dago ahulezia nagusia. Kudeaketa-planari zein hizkuntza-irizpideei buruzko informazioa modu orokorrean jasotzeak ondorio zuzena dauka euren lan-jardunari lotutako hizkuntza-eginkizunen betetze-mailan.
GAITASUNA	Donostia Sustapeneko langileen % 86k du bermatuta Hizkuntza Eskakizunen bat: Langileen % 56k egiaztatuta du 3. HE edo 4. HE. Langileen bi heren gai da bere lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko, eta ahozko gaitasuna, idatzizkoaren gainetik dago. Bestetik, ia arduradun politiko guztiek beren funtzioak euskaraz betetzeko gaitasuna dute.
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	Herritarrei eta beste interes-taldeei gutxi komunikatzen zaie euskararen erabilera sustatzeko estrategia, eta azken urtean, ez da euskararen normalizazioaren ezagutza jasotzeko ekimenetan parte hartu.
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmen gehienek edo ia guztiek txertatuta dituzte hizkuntza-klausulak; eta jarraipen sistematikoa egiten zaie. Dirulaguntza zein hitzarmenetan txertatutako hizkuntza-klausulen betetze-mailaren segimendua egiten da eta ez direnean betetzen, dirulaguntzak ukatu izan dira, ez ordea hitzarmenen kasuan. Azpikontratazioan ere hizkuntza-klausulak txertatzen dira, batez ere, herritarrei, entitatearen izenean, zerbitzuak eskaintzera bideratutako horietan.

ERABILERA

Zerbitzu-hizkuntza

ARLOA	ONDORIOAK
IRUDIA	Oro har, Donostia Sustapeneko irudiarekin lotutako edukiak (errotulazioa, argitalpenak, iragarkiak, sare sozialak edota webgunea) ele biz daude. Entitatearen agerraldietan zein herritarrentzat antolatzen diren ekitaldietan, informazioaren % 30 euskaraz ematen da eta % 70 gaztelaniaz.
HERRITARREKIKO HARREMANAK	Herritarrekiko Harremanak Ahoz: Langile askok ez du herritarrekiko harreman zuzenik, baina ahozko harremanak dituztenen artean, % 27k besterik ez du beti egiten lehen hitza euskaraz. Herritarrekiko Harremanak Idatziz: Idatzizko komunikazio guztiak ele biz bidaltzen dira, eta euskarazko idatziei euskaraz erantzuten zaie beti. Herritarrentzat antolatzen diren ikastaroak: Saiakerak egin dira euskarazko taldeak osatzeko, baina taldeak osatzea lortu ez denez, ikastaroen % 100 gaztelaniaz eskaini da.

Lan-hizkuntza

ARLOA	ONDORIOAK
BARNE-HARREMANAK	Lankideen arteko ahozko lan-harremanak %25 izaten dira euskaraz, eta harreman ez formaletan erabilerak gora jotzen du. Lan-bileretan ere, euskararen erabilera txikia da. Izan ere, joera badago euskaldunek beraien artean euskaraz geroz eta gehiago aritzeko, baina euskaraz ez dakien lankideren bat badago bileran, denek jotzen dute gaztelarara. Entitate barruko idatzizko lan-komunikazioetan euskararen erabilera altuagoa da, eta prozedura administratiboei dagokionez, xedapen orokor guztiak ele bitan abiatzen dira.
KANPO-HARREMANAK	Donostia Sustapeneko langileek sektore publikoko honako entitateekin egin ohi dituzte harremanak: Donostiako Udalarekin eta Udalaren menpeko beste entitateekin, Lanbiderekin, GFArekin edo Eusko Jaurlaritzarekin. Horiekin jarduteko hizkuntza-irizpidea euskaraz egitea bada ere, batez beste, langileen % 44 komunikatzen da sektore publikoko beste langileekin.

ARLOA	ONDORIOAK
PRESTAKUNTZA	Prestakuntzaren % 100 gaztelaniaz eskaintzen zaie langileei. Izan ere, taldeak osatzeko erabiltzen diren irizpideak zeintzuk diren kontuan hartuta (arloka edo ohiko lan-taldeka antolatu ohi dira), zaila da euskarazko taldeak egitea. Bestetik, langileen % 71,43k prestakuntza orokorra jaso du azken urtebeteen. Baina taldeak antolatzean hizkuntzaren aldagaia ez denez kontuan hartu, prestakuntza orokorra, oro har, gaztelaniaz eskaini da. Hizkuntza-trebakuntzari dagokionez, langileei eskaintzen zaie, baina ez modu indibidualizatuan edo norberaren beharrak kontuan hartuta.
BALIABIDE INFORMATIKOAK	Langileen %56k oro har gaztelaniaz erabiltzen ditu baliabide informatikoak, euskaraz eskuragarri izan arren.
SORTZE-HIZKUNTZA	Langileen hiru laurden euskarazko testuak sortu behar dituzte lanean, baina horietatik, % 69,23k gaztelaniaz sortzen dituzte testuak, eta itzultzaile neuronala edo beste baliabide batzuk erabiliz, sortutako testua gainbegiratzen dute. Testuak nagusiki euskaraz sortzen dutenak %15 dira.

3.2. Erronka eta helburu estrategikoak

3.2.1. Kudeaketaren erronka eta helburu estrategikoak

KUDEAKETAREN ERRONKA	DSS entitatearen kudeaketa orokorrean euskararen aldagaia txertatzea eta jarraipen sistematikoa zein operatiboa egitea: Hizkuntzaren kudeaketaren ardurak banatzeko eta zabaltzeko, dauden egiturak indartuz, egitura berriak sortuz, eta horietan guztietan, lidergoaren proaktibotasuna landuz.
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOA
Euskararen kudeaketa orokorra	Egiturak indartzea erabilera-planen zein hizkuntza-irizpideen kudeaketa eta jarraipenerako sistema eraginkorra sortzeko.
Lidergoa	Arduradun politiko eta teknikoek inplikazioa eta proaktibotasuna sustatzea: arduradunek euskararen kudeaketan duten funtzioa landuz eta egituretan parte hartuz.
Langileak	- Langileek hizkuntza-irizpideak barneratzea eta horiek betetzea; langileen lan-jardunari lotutako hizkuntza-eginkizunei buruzko informazioa zabaltzea; hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egitea. - Langileen inplikazioa sustatzea euskararen erabilera sustatzeko ekintzetan, prozesuaren parte senti daitezen. Horretarako, komunikazio-lana sendotzea.

Gaitasuna	- Lanpostuei dagozkien hizkuntza-eskakizunak ezartzea. - Gaitasuna dutenei baliabideak eskaintzea euskaraz lan egiteko eta gaitasuna ez dutenen gutxieneko ezagutza bermatzea. - Langile guztiei gaitasuna hobetzeko prestakuntza eskaintzea.
Euskararen erabilera sustatzeko estrategia	Zabalkunde-estrategia lantzea Donostia Sustapena entitateak euskararen erabilera sustatzeko abian jarritako estrategiaren berri emateko.
Hizkuntza klausulak	Hasitako ibilbideari jarraipena ematea: Dirulaguntza eta hitzarmenetan txertatzen diren hizkuntza-klausulak betearaztea, azpikontratazioetan jarraipen sistema hobetu eta ohiko dokumentazioa (kontratazio-espedienteak) ele biz sortzen jarraitzea %100era heldu arte.

3.2.2. Erabileraren erronka eta helburu estrategikoak

ERABILERAREN ERRONKA		Euskara zerbitzu-hizkuntza gisa guztiz bermatzea eta barne- zein kanpo-harremanetan euskararen erabilera areagotzea.
ARLOA		HELBURU ESTRATEGIKOA
Zerbitu-hizkuntza	Irudia	Komunikazio eta irudian (entitatearen agerraldietan zein herritarrentzat antolatzen diren ekitaldietan), elebitasuna bermatzea eta hizkuntza-irizpideak betetzen direla ziurtatzeko jarraipena egitea.
	Herritarrekiko harremanak	- Langileek proaktibotasunez jokatzeko herritarrekiko harremanetan, zerbitzu-hizkuntza %100ean bermatzeko. Hala, arreta berezia jarriko da herritarrekin ahozko harremanak dituzten langileengan, beti lehen hitza euskaraz egin dezaten. - Euskarazko hezkuntza-eskaintza areagotzeko, herritarrentzat antolatzen diren ikastaro guztietan euskarazko taldeak osatzeko aukera bermatzea.
Lan-hizkuntza	Barne-harremanak	Lankideen arteko ahozko zein idatzizko harremanak nagusiki euskaraz izatea eta lan-bileretan euskararen erabilera areagotzea. Horretarako, hizkuntza-ohiturak aldatzeko estrategiak landu.
	Kanpo-harremanak	- Sektore publikoko langileekin komunikatzeko hizkuntza-irizpideak argitzea eta horiekin nagusiki euskaraz jardutea, ahoz zein idatziz. - Enpresa pribatuekin harremana egitean, ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzea.
	Prestakuntza	3. eta 4. HE duten langileek prestakuntza euskaraz jasotzea, aukera dagoenean. Donostia Sustapena entitatearen esku dagoen barne-prestakuntza euskaraz izatea. 5 urteko epean langileek jasotzen duten prestakuntzaren % 50 euskaraz izatea gutxienez. - Hizkuntza-prestakuntza eskaintzea, bereziki idatzizkoari dagokionez.
	Baliabide informatikoak	Baliabide informatikoetan euskararen erabilera areagotzeko, sustapen-lana egitea.

**Sortze-
hizkuntza**

Euskaraz sortzeko estrategia zehaztea: Euskaraz sortzeko gaitasuna areagotzea eta euskarazko sorkuntza handitzea

3.3. Plan estrategikoa

3.3.1. Adierazleen arabeko helburuak

Hasieran aipatu bezala, Plan Estrategikoan aginte-paneleko adierazleez gain, Donostia Sustapena entitateak erronka eta helburu estrategikoak erdiesteko adierazleak txertatu ditugu. Bertan, adierazle bakoitzaren egungo egoera (hau da, 2023ko adierazle horren datu kuantitatiboa) eta plangintzaldi amaierarako aurreikuspena zehaztu ditugu (hau da, zein ehunekotara iritsi nahi dugun 2027an).

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK				
		ZK	ADIERAZLEAK	BISIOA		
				HASIERAKO EGOERA 2023 %	AURREI- KUSITAKO EGOERA 2027 %	ALDEA igoera %
EUSKARA- REN KU- DEAKETA OROKO- RRA	Egiturak indartzea erabilera-planen zein hizkuntza-irizpideen kudeaketa eta jarraipenerako sistema eraginkorra sortzeko.	1	Entitateak erabilera-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	25	50	25
		2	Erabilera-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	25	50	25
LIDERGOA	Arduradun politiko eta teknikoen inplikazioa eta proaktibotasuna sustatzea: arduradunek euskararen kudeaketan duten funtzioa landuz eta egituretan parte hartuz.	3	Arduradunek (politiko eta teknikoek) parte hartzen dute erabilera-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean	8	33	25
		4	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera-planean finkatutako helburuak bete daitezzen	0	25	25
		5	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, erabiler-planean zehaztutako moduan	25	50	25
LANGI- LEAK	Langileek hizkuntza-irizpideak barneratzea eta horiek betetzea; langileen lan-jardunari lotutako hizkuntza-eginkizunenei buruzko informazioa zabaltzea; hizkuntza-irizpideen betetze mailaren jarraipena egitea.	6	Langileei ematen zaie informazioa entitateko erabilera-planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten	43	53	10
		7	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte	59	69	10
	Langileen inplikazioa sustatzea euskararen erabilera sustatzeko ekintzetan, prozesuaren parte senti daitezzen. Horretarako, komunikazio-lana sendotu.	8	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak	57	67	10
		9	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan	31	50	19
		10	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak entitatean duen bilakaeraz	59	69	10

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ZK	ADIERAZLEAK	HASIERAKO EGOERA 2023	AURREI- KUSITAKO EGOERA 2027	ALDEA IGOERA
GAITA- SUNA	Lanpostuei dagozkien hizkuntza-eskakizunak ezartzea.	11	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	69	74	5
	Gaitasuna dutenei baliabideak eskaini euskaraz lan egiteko eta gaitasuna ez dutenen gutxieneko ezagutza bermatzea.	12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	63	70	7
	Langile guztiei gaitasuna hobetzeko prestakuntza eskaini.	13	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	100	100	0
EUSKARA- REN ERA- BILERA SUSTA- TZEKO ES- TRATEGIA	Zabalkunde estrategia landu Donostia Sustapena entitateak euskararen erabilera sustatzeko abian jarritako estrategiaren berri emateko	14	Entitateak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldee	25	50	25
		15	Entitateak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du	83	90	7
HIZKUN- TZA KLAUSU- LAK	Hasitako ibilbideari jarraipena ematea: Dirulaguntza eta hitzarmenetan txertatzen diren hizkuntza-klausulak betearaztea, azpikontratazioetan jarraipen sistema hobetu eta ohiko dokumentazioa (kontratazio-espeditenteak) ele biz sortzen jarraitzea %100era heldu arte.	16	Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira	100	100	0
		17	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira	100	100	0
		18	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari	75	100	25
		19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari	75	100	25

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK				
		ZK	ADIERAZLEAK	BISIOA		
				HASIERAKO EGOERA 2023	AURREI KUSITAKO EGOERA 2027	ALDEA igoera %
2.1 ZERBITZU HIZKUNTZA	IRUDIA	20	Entitatearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude	85	100	15
		21	Entitatearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.	85	100	15
		22	Entitateak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan	30	75	45
		23	Entitateak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak	98	100	2
	HERRITARREKIKO HARREMANAK	24	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	59	80	21
		25	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	95	100	5
		26	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	15	30	15
		27	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	100	100	0
		28	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	100	100	0
		29	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio entitateari, ahoz	35	35	0
		30	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio entitateari, idatziz	25	25	0

	ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ZK	ADIERAZLEAK	HASIERAKO EGOERA 2023	AURREI- KUSITAKO EGOERA 2027	ALDEA igoera
2.2 LAN HIZKUNTZA	BARNE- HARRE- MANAK	Lankideen arteko ahozko zein idatzizko harremanak nagusiki euskaraz izatea eta lan-bileretan euskararen erabilera areagotzea. Horretarako, hizkuntza-ohiturak aldatzeko estrategiak landu.	31	Lan-bilerak euskaraz egiten dira	15	25	10
			32	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	25	35	10
			33	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da	31	45	14
			34	Entitate barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira	47	55	8
			35	Entitate barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian	75	85	10
			36	Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian	100	100	0
			37	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago	33	45	12
	KANPO- HARRE- MANAK	Sektore publikoko langileekin komunikatzeko hizkuntza-irizpideak argitzea eta horiekin nagusiki euskaraz jardutea, ahoz zein idatziz. Enpresa pribatuekin harremana egitean, ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzea	38	Sektore publikoko entitateekin euskaraz egiten da ahozko harremana	44	55	11
			39	Sektore publikoko entitateekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	100	100	0
			40	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	28	30	2
			41	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	50	55	5
	PRESTA- KUNTZA	3. eta 4. HE duten langileek prestakuntza euskaraz jasotzea, aukera dagoenean. Donostia Sustapena entitatearen esku dagoen barne-prestakuntza euskaraz izatea. 5 urteko epean langileek jasotzen duten prestakuntzaren % 50 euskaraz izatea gutxienez. - Hizkuntza-prestakuntza eskaintzea, bereziki idatzizkoari dagokionez.	42	Entitateak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei	0	10	10
			43	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra	6	10	4
			44	Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei	25	40	15
	BALIA- BIDE IN- FORMA- TIKOAK	Baliabide informatikoetan euskararen erabilera areagotzeko, sustapen-lana egitea.	45	Entitateak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak	37	50	13
			46	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak	34	50	16
	SORTZE- HIZKUN- TZA	Euskaraz sortzeko estrategia zehaztea: Euskaraz sortzeko gaitasuna areagotzea eta euskarazko sorkuntza handitzea.	47	Euskaraz sortzen dira dokumentuak	33	40	7

3.3.2. Kudeaketa plana

Urtez urte egingo dira kudeaketa-planak eta urte amaieran adostutako adierazleak kontuan izanda, ebaluazioa egin eta hurrengo urteko kudeaketa-plana adostuko da.

3.4. Hizkuntza irizpideak

Plan Estrategikoaz gain, **hizkuntza-irizpideak** onartuko ditu Donostia Sustapenak. Hizkuntza-irizpideok entitate bakoitzaren plana garatzeko gidalerro eta tresna lagungarria izango dira, hizkuntza-arau batzuk finkatzen baitituzte euskararen erabilera normalizatzeko. Haren betetze-maila eta hartu beharreko neurriak planari etengabeko jarraipena eginez aztertuko dira, baita aldizka egingo diren ebaluazioen bidez ere.

19/2024 Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, hizkuntza irizpideak denboran irauteko tresna bat dira, eta plangintzaldien eta plan estrategikoen iraupenak ez du haien indarraldia baldintzatuko.

3.5. Antolakuntza egitura eta funtzioak

Plan estrategiko hau eta, oro har, VII. plangintzaldiak jasotzen duena garatzeko eta inplementatzeko Donostia Sustapena entitateko antolakuntza egitura ondokoa da:

a) Talde Eragilea

Honako hauek dira Talde Eragilea osatuko duten kideak:

- Donostia Sustapena entitatean Euskara Plana garatzeko ardura duten teknikariak.

Eskumenak, berriz, ondokoak dira:

- Donostia Sustapenaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren eta Hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideen lanketa eta jarraipena egitea.
- Hauetan jasotzen diren ekintza eta irizpideak betetzeko proposamenak egitea eta betetzerakoan izan litezkeen oztopoak detektatzea, aztertzea eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Lehentasunak zehaztea.

b) Euskara Batzordea

Datorren plangintzaldian batzorde honek kide hauek izango ditu:

- Donostia Sustapena entitatean Euskara Plana garatzeko ardura duten teknikariak.
- Zuzendaritzako kide bat, edo, salbuespen modura, berak eskuordetutako pertsona, eta betiere, ardura zuzendariarena berarena izango da.

- Donostia Sustapeneko arlo ezberdinetako kideak.

Euskara batzordeek honako funtzio hauek izango ditu:

- Donostia Sustapenaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren eta Hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideen jarraipena egitea.
- Administrazio Kontseiluak onartutako Plan Estrategikoa inplementatzea, Zuzendaritza-Gerentziak onartutako urteko ekintza-planen edo bestelako-planen bitartez, hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak gidaritzat hartuta.
- Aurrera eramango diren normalizazio-ekintzak eta baliabideak adostea, zuzendaritzaren onespenerekin.

3.6. Baliabideak

Euskara Plana aurrera eramateko giza baliabide hauek aurreikusten dira:

- a) Talde Eragilean parte hartuko duten langileak.
- b) Euskara Batzordean parte hartuko duten langileak.

Talde Eragilea osatzen duten teknikariak izango dira dinamizatzailerak eta aholkulari Donostia Sustapena entitateko kudeaketa-planak inplementatzerakoan. Euren zereginak hauek izango dira, besteak beste: egitasmoaren diseinua proposatzea, berau betetzeko normalizazio-ekintzak proposatzea, egitasmoa betetzeko hizkuntzari lotutako aholkularitza eta laguntza ematea eta ebaluazioa egiteko metodologia proposatzea.

Bestetik, Donostia Sustapena entitateak hizkuntza-baliabideak eskainiko dizkie langileei euskaraz lan egiten laguntzeko: hizkuntza-prestakuntza, trebakuntza, dokumentu estandarrak, itzultzaile automatikoak, zuzentzaile ortografikoak eta abar.

3.7. Planaren garapena eta jarraipena

Donostia Sustapena sektore publikoko entitatea izanik, plangintzaldiaren hasieran (2023an), erdian (2025ean) eta amaieran (2027an) autoebaluazioa egitea komeni da, eta, gutxienez, aginte-paneleko adierazleen datuak bidali beharko dizkio Hizkuntza Politika Sailburuordetzari. Horretarako, SAREGIN izeneko aplikazio informatikoa sortu dute, datuak jaso eta Plan Estrategikoa eta kudeaketa-planak kudeatzeko.